

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Urdaibai

Esploratzaileen abentura

Lehen Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

Padura misterioz beteta dago. Lehen begiratuan lasaia dirudi... baina ondo erreparatzen badiozu, mundu oso bat mugitzen ari da: arrantzan ari diren hegaztiak, iragazten ari diren landareak, arnasten ari den lokatza... Benetako esploratzaile gisa ibiltzera gonbidatzen zaitugu, jolastuz eta behatuz. Zer aztarna ikusten dituzu? Zer soinu entzuten dituzu? San Kristobal paduratik 1,5 orduko ibilbidea eta Ekoetxea Urdaibairaordu bateko bisita.

Mugitu, jolastu eta ikasi! Natura ezagutzeko modurik onena... natura bizitzea delako.